3- En defecto de la anterior determinación, los bienes y derechos se destinarán por el Protectorado a otras fundaciones o entidades que persigan fines análogos a la extinguida, preferentemente a las que tengan su domicilio en el mismo municipio o, en su defecto, en el mismo territorio histórico.

### **Cláusula de salvaguardia en favor del Protectorado**

En ningún caso lo previsto en los presentes Estatutos podrá interpretarse en el sentido de limitar o sustituir las competencias que al Protectorado atribuye el ordenamiento jurídico en vigor, muy especialmente en relación con las autorizaciones, comunicaciones o limitaciones a las que la Fundación expresamente se somete.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B** 31067571



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

## **"FUNDACIÓN ARMA PLAZA FUNDAZIOA" FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK**

### **I. ATALAXEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. ARTIKULUA.- IZENA, IZAERA, EREMUA ETA HELBIDEA**

"**FUNDACIÓN ARMA PLAZA FUNDAZIOA**" izenpean fundazio izaerako irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat eratu da, eta eratzailleek hala nahita, fundazioaren ondarea iraunkortasunez interes orokorreko helburuak gauzatzearekin dago lotuta; helburu horiek estatutu hauen 3. Artikuluan daude deskribatuta.

#### **2. ARTIKULUA.- IRAUPENA**

Fundazioa izatez irautekoa da. Dena den noizbait Fundazioko helburuak betetzat ematen badira edo beteezinak suertatzen badira Patronatuak iraungitzat eman dezake, Estatutu hauen V. Atalean aurreikusitakoaren arabera.

#### **3. ARTIKULUA.- HELBURUAK**

Fundazioaren xedea ondokoa da:

- Hondarribiko monumentuak kontserbatu eta zaharberritzea eta bere ingurua hobetu eta egokitzea, bere izaera dela eta egokienak diren erabileratarako balioztatuz .
- Hondarribiko natura, kultura eta paisaia ondarea kontserbatu eta zabaltzea.
- Partikularrek edo beste erakunde publikoek helburu horiek lortzeko bideratutako jardueretan parte hartzea sustatzea.
- Herriaren artean fundazioaren helburuak zabaltzea, aipatutako helburuak ezagutu eta berauek lortzen laguntzeko.

Fundazioak helburuak lortzeko ondoko jarduerak burutu ahal izango ditu:



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

- Hondarribia "Monumentu Multzo" izendatzearekin zerikusia duten programa, proiektu eta ekimen guztiak kudeatzea.
- Antzeko helburuak dituzten erakundeekin sareetan sartuz esperientzien trukaketa sustatzea eta elkarrekin ekiteko bideak bilatzea.
- Fundazioko helburuak garatzen laguntzen duten ikerketa eta formazio egitarauak sustatu eta prestatzea.
- Tokiko ekonomia garatzen eta enplegua sortzen laguntzea, Hondarribiko historia, natura, kultura eta paisaia alorrak sustatu eta balioztatuz.
- Turismo kulturalari buruzko proiektuak kudeatzea. Ibilbideak sortzea.
- Formazio ikastaro eta jarduerak prestatu eta ematea: Hitzaldiak, sinposioak, mintegiak, kongresuak, etab.

Eta oro har, helburuak hobekien lortzeko behar adina ekimen burutzea.

Helburu hauek jartzeak ez dakar guztiak bete beharra, eta ez zaie lehentasun hurrenkera ematen.

#### **4. ARTIKULUA.- LAGUNTZAILEAK**

Estatutu hauen 3. artikuluan zehaztutako helburuak lortzeko, Fundazioak bertatik kanpoko pertsonen parte-hartzea lortuko du, helburu horien garapen egokirako beharrezkoa denean.

#### **5. ARTIKULUA.- HELBIDEA**

Fundazioaren helbidea Hondarribian izango da (Gipuzkoan), Pampinot kalean 16. zenbakian, Ramery ebxean, 20280 Posta Kodean.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

31067570



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

Patronatuak helbidea aidatzea erabaki ahal izango du, estatutuen aldaketa izapidetuta, indarrean dagoen legedian ezarritako mugen arabera, eta berehala Protektoratuari jakinarazi beharko dio.

Gainera Patronatuak ezarri beharko ditu Fundazioak edo bere delegazioek irekitako establezimenduen egoitzak.

## **6. ARTIKULUA.- LURRALDE EREMUA**

Bere jarduerak Hondarribiko Udalerrian garatuko ditu (Gipuzkoan).

## **7. ARTIKULUA.- JARDUERA ETA FUNTZIONAMENDU PRINTZIBIOAK**

Fundazioak ondoko printzipio hauek beteko ditu bere jardunean:

- a) Publizitatea eta gardentasuna, bere helburuen eta jardueren informazio nahikoa emanaz herritarrek, oro har, eta onuradun izan daitezkeen pertsonak ezagutu ditzaten.
- b) Inpartzialtasuna eta diskriminazio eza onuradunak zein izango diren erabakitzerakoan, bai eta haien jarduerari eta prestazioei dagokienean ere.
- c) Jardueraren ardatzak sustatzea, funtzionamendurako jokoera kodeak eta jardunbide egokiak sortuta.
- d) Patronatua osatzen duten pertsonen zerbitzu izpiritua sustatzea, eta Fundazioaren interesei lehentasuna ematea norbere interes partikularren aurretik.
- e) Lankidetzeta leiala eta etengabea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.
- f) Fundazioaren ondarea eta errentak hura sortzeko aintzat hartu ziren helburuetarako erabiltzeko betebeharra egiaz bete dadiia bultzatzea eta babestea, estatutu hauetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.
- g) Genero berdintasuna.

## **7. Bis ARTIKULUA.- ARAU ERREGIMENA**



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

Fundazioa ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskadiko Fundazioena, ezarritakoaren arabera zuzenduko da batez ere, eta gainerako lege-xedapen osagarriak eta beharrezkoak jarraituko ditu, izaera organiko eta administratibokoak, beharrezkoak direnak momentu bakoitzean; aldi berean, fundatzaileek estatutuetan adierazitako borondatearen arabera gidatuko dira eta Patronatuak, interpretatzeko eta garatzerako orduan, ezarritako arau eta xedapenen arabera.

#### **8. ARTIKULUA.- NORTASUN JURIDIKOA**

Fundazioak behin Erregistroan izena emanda berezko nortasun juridiko independentea du, eta eragiteko gaitasun juridiko osoa du.

Ondorioz bere sorrera eragin duten fundazio helburuak betetzeko beharrezko ekintza guztiak burutu ahal izango ditu.

Izaera enuntziatiboz eta ez murriztailez ondasun higikor nahiz higiezinak eta eskubideak eskuratu, kontserbatu, eduki erabili edo besterendu ahal izango ditu. Edozein kontratu mota eta ekintza egin ahal izango du; transakzioak egin ahal izango ditu eta gobernu- nahiz epaiketa-bideetara jo ahal izango du, mota guztietako akzioak eta salbuespenak egikaritzuz, epaitegietan, auzitegietan eta erakunde publiko nahiz pribatuetan. Hori guztia Protektoratuaren baimenetan edo indarrean dagoen legedian aurreikusitako berorri egindako jakinarazpenen kaltetan joan gabe.

#### **9. ARTIKULUA.- JARDUTEKO ASKATASUNA**

Fundazioak, behin une bakoitzeko egoerak artatuta, hirugarren artikuluan azaldutako edozein helburua lotzeko bere jarduera burutzeko askatasun osoa izango du, bere Patronatuaren ustez lehentasuna duten helburu zehatzen arabera.

#### **10. ARTIKULUA.- HELBURUEN GARAPENA**

Fundazioaren helburuen garapena besteak beste honela gauzatu ahal izango da (zerrendaturik datoz helburu xeherik gabe):

A) Fundazioak zuzenean eraginda, bere instalazioetan edo besterenetan.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

31067569



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

- B) Eikarte edo fundazio izaera duten beste erakundeak sortuz edo beraiekin lan eginez.
- C) Fundazioaren helburuetarako onuragarriak diren edozein erakunde, instituzio edo pertsona fisiko nahiz juridikoren jardueren garapenean parte hartuta.

## **II. ATALA. FUNDAZIOAREN HELBURUAK LORTZEKO BALIABIDEAK EZARTZEKO ETA ONURADUNAK ZEIN IZANGO DIREN ZEHAZTEKO OINARRIZKO ARAUAK**

### **11. ARTIKULUA.- ERRENTEN ETA DIRU SARREREN XEDEA**

- 1.- Fundazioaren ondasunak eta errentak, zuzen-zuzenean eta berehalakoan, Fundazioaren helburuak betetzeari lotuta geratzen direla ulertuko da.
- 2.- Fundazioak, aldian-aldian, bere xedeari berezko zaizkion jarduerak programatuko ditu; eta, horretarako, urtero-urtero, prestazioen plangintza prestatuko du, eta halakoak egin eta adjudikatzeko modua erabakiko du.
- 3.- Errenta garbien eta edozein kontzepturen ondoriozko diru-sarreraren %70 erabili beharko da haren helburuak betetzeko; edozein kasutan ere, aurretiaz kendu beharko dira haiei dagozkien zergak.

Ekarpenak ondare-zuzkidura gisa egiten direnean, dela eraketa-unean, dela geroagoko une batean, ekarpen horiek baztertuta geratzen dira baldintza hau betetzeari dagokionez.

Gainerako diru-sarrerak fundazioaren zuzkidura gehitzeko erabiliko dira, behin administrazio-gastuak kenduta; administrazio-gastu horiek ezin dira, %20tik gorakoak izan, horretarako Patronatuak esanbidez baimena ematen ez badu, fundazioak eskaera arrazoitua eginda, eta indarreko lege eta erregelamendu xedapenetan ezarritakoa aintzat hartuta.

### **12. ARTIKULUA.- HELBURUAK ESTALTZEKO BALIABIDEAK ZATI BERDINETAN ERABILI BEHAR EZ IZATEA**

Fundazioko baliabideak fundazioko helburua lortzeari atxikitzen hartuko dira kuotak ezarri gabe. Helburu jakin baterako transmititutako ondasunak salbu, izan ere transmisioa egiten duenak ezarritako helburuari atxikiak izango dira.



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

### **13. ARTIKULUA.- ONURADUNAK ZEHAZTEA**

- 1.- Oro har Hondarribia izango da Fundazioaren onura jasoko duena.
- 2.- Inork ezin izango du Fundazioaren edo Patronatuaren aurrean eman aurretik bere etekinekiko eskubiderik alegatu, ezta pertsona zehatzei atribuziorik eman ere.

### **14.- ARTIKULUA JARDUEREN PUBLIZITATEA**

Fundazioak bere helburu eta jardueri buruzko informazioa emango du bere onuradunek eta gainontzeko interesatuek horren berri izan dezaten.

## **III. ATALA FUNDAZIOAREN GOBERNUA**

### **PATRONATUA**

### **15. ARTIKULUA.- IZAERA**

Patronatua izango da dagozkion betebeharrak burutuko dituen Fundazioko gobernu, ordezkaritza eta administrazio organoa, beti ere antolamendu juridikoan eta Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

Bere jardunean Patronatuak indarrean dagoen legediak aurreikusitakoa eta Fundatzaileak Estatutu hauetan adierazitako nahia bete beharko du.

Fundazioari dagokio fundazio helburuak betetzea eta Fundazioko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratzea, beraien etekin eta erabilerari eutsiz.

### **16. ARTIKULUA.- ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

- 1.- Patronatukideek beren ahalmenak era independentean erabiliko dituzte, oztopo eta mugarik gabe.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

31067568



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

Ondorioz ezin izango zaie haien ebazpen edo akordioetan Estatutu hauetan adierazia ez den beste baldintzarik ezarri, ezta antolamendu juridiko batean beharrezko eskubide izaera duen baldintzarik ere.

2.- Hona hemen Patronatuko kideen betebeharretako batzuk: Fundazioaren xedeak bete daitezten lortzea; deitzen diren bileretara joatea; ordezkari zintzo baten prestasunaz lan egitea karguan; Fundazioaren ondasunak eta balioak kontserbazio eta ekoizpen egoera onean mantentzea; eta indarreko lege xedapenetan eta estatutu hauetan ezarritakoa betetzea egindako jardunetan.

3.- Fundazioaren aurrean, Patronatuko kideen erantzukizuna izango dira legearen edo estatutuen kontrako ekintzengatik edo zabarkeriaz egindako ekintzengatik eragindako kalte eta galerak. Ez dute inolako erantzukizunik izango ekintza horiek egiteko erabakiari kontra egin diotenenk edo erabaki horietan parte hartu ez dutenek.

## **17. ARTIKULUA.- KIDEAREN KARGUA DOAKOA IZATEA ETA FUNDAZIOKO KIDEAK KONTRATATZEKO ARAUBIDEA**

1.- Patronatuko kideen karguak konfiantzazkoak eta ohorezkoak izango dira.

2.- Ondorioz kideek doan lan egingo dute, hau da, ez dute inolako ordain saririk jasoko ezarri zaizkien zereginak betetzeagatik. Dena den, eginkizun horiei lotuta dituzten zuritutako bileretarako joan-etorri gastuen zenbatekoa itzuli egingo zaizkie, baita betebeharrak zehatzen bat burutzeko Fundazioaren intereserako egin beharreko beste edozein gastu ere.

3.- Kideek ezin izango dute Fundazioarekin kontratatu, ez haien izenean ez hirugarren batenean, non eta ez badute Protektoratuaren baimena.

## **18. ARTIKULUA.- KIDE KARGUAK IZENDATU ETA ONARTZEKO ARAUAK**

Lehen patronatua Fundatzaileek Fundazioa eratzeko eskrituran izendatuko dute.

Edozein arrazoi dela eta sortzen den postu hutsa betetzeko epea sei hilabetekoa izango da, hutsunea gertatzen denetik zenbatzen hasita.



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

Hasieran aurreikusitako kide kopurua handitzeko akordioek Patronatuko kideen bi herenen onespena beharko dute.

Kideek haien eginkizunak beteko dituzte baldin eta aurretik haien kargua agiri publikoan, notario sinadura duen agiri pribatuan, Fundazio Erregistroko arduradunaren aurrean bertaratuta eta zuzenbidearen aldetik indarra duen edozein baliabidez espresuki onartua badute.

Karguaren onespena Protektoratuaren aurrean jakinaraziko da, eta Fundazio Erregistroan izena eman beharko da.

#### **19. ARTIKULUA.- PATRONATUKIDEEK KARGUA UZTEA**

Kideek ondoko kasuetan utziko dute kargua:

A) Heriotza nahiz heriotza adierazpenaren ondorioz, edo nortasun juridikoa iraungi izanaren ondorioz.

B) Ezgaitasunaren ondorioz, eta desgaitasun nahiz bateraezintasunaren ondorioz, legean ezarritakoarekin bat etorrituz.

C) Patronatukidea izendatzeko arrazoia izan denean patronatukide horrek kargu zehatz bat izatea, kargu hori uztearen ondorioz.

D) Kargu hori ordezkari leial baten zintzotasunez ez betetzeagatik, baldin eta hala adierazten badu ebazpen judizialak.

E) Lege edo Estatutuen aurkako ekintzek edo ardura gabe egindako ekintzek sortutako kalteen erantzukizuna jasotzen duen ebazpen judizial irmoagatik.

G) Uko egiteagatik, hain zuzen ere Fundazio erregistroan bertaratuta edo agiri publiko nahiz pribatuan Notarioak egiaztatutako sinadura duela jasota; eragina Protektoratuari formalki jakinarazten zaion unetik izango du.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

31067567



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

## 20. ARTIKULUA.- ERAKETA

Patronatua hasiera batean gutxienez zazpi kodez eta gehienez hamabi kidez osatua egongo da, geroago handitu litekeelarik Patronatuak berak erabakia hartuz gero.

Patronatukideizaerahonakoek izango dute:

- HondarribikoUdalTxitGaraikoAlkatea.
- Zinegotzi bat, alderdipolitiko, Koalizioedohauteskundeelkartebakoitzekeordezkaria, HondarribikoUdaleanordeazkaritzaduena.
- Gainerakoak, momentubakoitzeanezarritakokidekopuruaosatu arte, HondarribikoUdalekoosokobilkurakaukeratukoditu, bertakozinegotzientartean.

LehenengoPatronatuaFundazioeskrituranezarritakoa izango da.

## 21. ARTIKULUA .- PATRONATUKO KARGUAK

- 1.- Patronatuburua Hondarribiko Udal Txit Garaiko Alkatea izango da.
- 2.- Patronatuak kideen artean patronatu-buruorde bat izendatuko du, berau patronatu-burua hilez gero ordezkaria dezan.
- 3.- Gainera Patronatuak Idazkari bat izendatuko du, eta berau kidea edo ez kidea izan liteke. Hala ez bada Patronatuan hitza izango du baina ez botoa.
- 4.- Patronatuak izendatutako gainontzeko kideak patronatukideak izango dira.

## 22. ARTIKULUA.- AHALMENAK ESKUORDETZEA ETA AHALORDETZEA

1.- Patronatuak kide diren pertsonetako baten esku utzi ahal izango ditu bere ahalmenak. Inolaz ere ezin izango dira eskuordetu honako hauekin loturiko erabaki hartzeak:

a) Urteko kontuen onarpena.



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

- b) Jarduera planaren onarpena.
- c) Estatutuak aldatzea.
- d) Fundazioaren bat egitea, zatiketa, eraldaketa, iraungipena eta likidazioa.
- e) Beste pertsona juridiko bat eratzeko ekintzak, ekintza horiek helburuekin zuzenean loturik daudenean izan ezik.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetan parte hartzeko ekintzak edo partaidetzen salmenta, haien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren % 20 baino handiagoa bada.
- g) Ondasunak edo eskubideak erabiltzeko edozein ekintza, Fundazioaren aktiboa % 20an gainditzen badute.
- h) Zuzkidura handitzea edo murriztea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat egitea, zatiketa edo lagapen globala.
- j) Elkarteak edo bestelako pertsona juridikoak iraungitzeko ekintzak.
- k) Patronatua osatzen duten pertsonen autokontratazioa, jarduera hori errepikaria denean eta babesletzak aurrez kasu berdinetarako baimendu duenean saibu.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak egitea eta formalizatzea.

2.- Patronatukideek beste Patronatukide baten esku utzi ahal izango dute Patronatuaren bilerean jarduteko ordezkaritza, patronatuburuari zuzendutako idatziaren bidez, eta bilera bakoitzerako bereziki betiere.

### **23. ARTIKULUA.- PATRONATUBURUAREN, PATRONATU BURUORDEAREN ETA IDAZKARIAREN ESKUMENAK.**



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

31067566



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

I) Patronatu-buruari dagokio pertsona publiko nahiz pribatu, erakunde eta agintarien aurrean Fundazioa ordezkatzea.

Patronatu-buruak egingo ditu bileratarako deiak, bera izango da buru, eztabaidak zuzenduko ditu, eta hala badagokio akordioak exekutatu ditu, hartarako ekintza mota guztiak egin ahal izango dituelarik eta beharrezkoak diren agiri guztiak sinatu ahal izango dituelarik.

II) Patronatu-buruordeari dagokio Patronatu-buruaren eginkizunak betetzea bera ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, Fundazioa ere ordezkari dezakeelarik, Patronatuaren akordioz hala erabakitzen denean.

III) Idazkariari ondoko eginkizunak dagozkio: Fundazioko agiri guztiak zaintzea, Patronatuko bileren aktak jasotzea, beharrezkoak diren egiaztagiri eta txostenak egitea, eta eskuordetzen zaizkion beste guztiak. Gaixorik dagoenean, bertan ez dagoenean edo postua hutsik dagoenean Idazkari eginkizunak Patronatuko kideak beteko ditu.

#### **24. ARTIKULUA.- PATRONATUAREN EGINPIDEAK**

Patronatuak eskumena izango du Fundazioa gobernatu eta administratzeko, salbuespenik gabe, baita lege gertakizun eta egoerak ebazteko ere.

Izaera erabat enuntziatiboz eta ez murriztailez, ondoko eginpideak izango ditu, legez dagozkion Protektoratuaren baimenen edo berorri egindako jakinarazpenen kaltetan joan gabe:

1. Fundazioaren goi-mailako ikuskapena, zainketa eta Kontrola gauzatzea, eta Fundazioko kudeaketa lanak eta egin ohi diren egitarauak onartzea.
2. Fundazioko Estatutuak aldatzeari buruzko akordioak interpretatu, garatu (dagokion araudi osagarriarekin) eta hartzea, beti ere Fundazioko interesetarako eta bere helburuak lortzeko komenigarria bada.
3. Fundazioko helburuen artean dauden fondoak banatu eta aplikatzeari buruzko lerro orokorrak ezartzea.



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

4. Ahaldu orokorrak nahiz bereziak izendatzea eta gauzatzeko beharrezko ahalmenak ematea, baita kargu horietatik kentzea ere.
5. Ohiko eta aparteko aurrekontuak, inbertsioak eta dagozkion memoriak onartzea, baita Protektoratuari aurkeztu beharreko ekonomi balantzea eta urteko kontuak ere.
6. Fundazioaren helbidea aldatzea eta delegazioak ireki eta ixtea erabakitzea.
7. Helburuak bete ezin badira batu, iraungi eta likidatzeko egintzei buruzko akordioak hartzea.
8. Bere eskumenak Patronatukide batengan edo gehiagorengan eskuordetzea, hauek izan ezik: jardute plana, urteko kontuak Estatutuen aldaketa, Fundazioaren likidazioa eta Protektoratuaren baimena behar duten gainontzeko ekintzak.
9. Fundaziorako, edo bere alde, ondasun higikor nahi higiezinak eskuratu, besterendu eta zergapetzea erabakitzea (hipotekak, bahitura eta antikresiak barne), dagozkion kontratuak sinatuz.
10. Fundaziorako edo Fundazioaren xedeetakoren bat betetzeko ondasunak eskuratzea onartzea, beti ere eskuratutako ondasun edo eskubideen zenbatekoa ondasun, eskubide errenta edo fruituek izango duten helburua betetzeko egokia dela irizten badio.
11. Mota guztietako finantza eragiketak adostea erakunde publiko eta pribatuekin, mailegu eta kredituak barne, baita hirugarrenei fidantza ematea ere.
12. Fundazioko zorroa osa dezaketen balio higikorrak eskuratu eta besterentzeari buruz erabakitzea.
13. Fundazioko ondarea osatzen duten errenta, fruitu, dibidendu, eta beste edozein produktu eta etekin kobratu eta jasotzea, baita berorri edozein tituluk edo pertsona fisiko nahiz juridikok zor dizkion kopuruak ere.
14. Batzar orokorretan, bileretan, sindikatuetan ekintzetan eta Konpainien edo erakunde emaileen bestelako organismoetan Fundazioari bere jabetzako akzio eta balore eta higikorren



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

31067565



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

titularra den aldetik dagozkion politika eta ekonomia izaerako eskubideak erabiltzea, irizten dion moduan eta erabakitzen duen ordezkartzaren bitartez, titularrari emandako eskumen juridiko guztiak erabiliz, egokiak deritzon ekintza, kontratu, hitzarmen, proposamen eta agiriak sinatuz.

15. Beharrezko ordainketa guztiak egitea, baita dibidendu pasiboak eta Fundazioak une bakoitzean dituen fondoak bildu, administratu eta babesteko.

16. Fundazioaren helburuetarako egokiak deritzon obrak egitea eta mota guztietako zerbitzu eta hornidurak kontratatzea, edozein dela ere beren kalitate eta garrantzia; hartarako edozein baliabide eraili ahal izango du, bai zuzenean eskuratzea eta bai enkantea edo lehiaketa, inongo baimenik behar ez duelarik.

17. Eskubide, ekintza eta salbuespen guztiak erabiltzea, izapide, instantzia, gertaera eta errekurtsuak egiteko Fundaziorako interesekoak diren edo bere eskumenekoak diren prozedura, espediente, erreklamazio eta epaiak jarraituz, eta hartarako egokiak deritzon ahalmena emanaz, posizioei erantzutea eta berraztertze epaiketa barne.

18. Fundazioko ondasunak xedatu, administratu, kontserbatu, zaindu eta babeste eginkizunak betetzea, eremu judizialaren barrenen nahiz kanpoan.

19. Likidazio kasuetan likidazioaren ondoriozko ondasun eta eskubideak zein erakunde edo interes orokorreko jarduerari eman behar zaizkion zehaztea.

20. Fundaziorako gerente bat izendatu eta kontratatzea, hori gauzatzeko langile administratiboa kontratatzea, eta beharrezkoak diren aholkulari legal eta ekonomiko-fiskalak izendatu eta kontratatzea.

21. Oro har, Fundazioa administratu eta zuzentzeko garatu beharreko eginkizun guztiak, beti ere lege baldintzak beteta.

Akordio horiek gauzatzea Patronatu buruari dagokio, nahiz eta akordio horietan espresuki beste Patronatukideren bat izenda daitekeen.

## 25. ARTIKULUA.- EZTABAIDATU ETA AKORDIOAK HARTZEKO ERA



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

1.- Patronatuak gutxienez bi bilera egingo ditu urtean. Urteko lehenbiziko sei hilabeteetan aurreko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena, inbentarioa, jarduera Memoria, aurreko ekitaldiko egoeraren balantzea eta emaitzen Kontua onartzeko bilduko da derrigor. Era berean, laugarren hiruhilekoan, aurretik dagokion deialdia eginda, hurrengo ekitaldiko Aurrekontua onartuko da, Protektoratuari abenduaren 31 baino lehenago bidaltzeko.

2.- Deialdiak idazkariak bidaliko ditu idatziz eta era arruntean gutxienez hamar egun lehenago, lehenbiziko eta bigarren deialdia eginda, eta bertan bilerarako gai zerrenda, lekua eta data agertuko dira.

Presazkoa bada epe hori gutxienez hiru egunekoa izan liteke.

Kideak horren berri jaso izana egiaztatzeko moduan egingo da jakinarazpen hori.

Ez da alde aurretik bileraren deialdirik egin behar kide guztiak bertaratuta daudenean eta bilera egitea aho batez erabakitzen dutenean.

3.- Patronatua baliozkotasunez eratuta geratuko da, lehenengo deialdian, kideetatik erdia eta bat gehiago bertaratzen direnean, eta bigarren deialdian, bertaratutako kide kopurua edozein delarik ere.

4.- Patronatuaren akordioak berehala gauzatzekoak izango dira, eta botoen gehiengoa izanda hartuko dira; berdinketa izanez gero Patronatu-buruaren edo (hala badagokio) buruordearen kalitatezko botoak erabakiko du.

Dena den, nahitaezkoa izango da bertaratuen bi herenek erabaki horren aldeko botoa ematea ondoko gaietarako akordioak hartzeko: Estatutuak berritu edo aldatzeko, fundazioko kideen kopurua ezartzeko, kide berriak eta patronatuko karguak izendatzeko, lege edo estatutuen ondorioz kide izateari uztea eta karguak uztea, bere ondareko ondasunak besterendu eta zergapetzea, eta Fundazioa batzea edo iraungitzea.

5.- Idazkariak Patronatuko bilerei buruz dagokion Akta jasoko du, eta bertaratu diren kide guztiek sinatu eta bertan edo hurrengo bilkuran onartuko dute. Behin onartuta dagokion akta liburuan idatziko da eta Idazkariak sinatuko du Patronatu-buruaren oniritziarekin.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B** 31067564



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

#### **IV. ATALA ARAUBIDE EKONOMIKOA**

##### **26. ARTIKULUA.- HORNIDURA**

Fundazioaren hornidura hauek osatuko dute:

A) Hasierako hornidurak

B) Fundazioak eskuratutako edo eskuratuko dituen ondasun eta eskubideek, baldin eta Patronatuak Fundazioko helburuetarako era iraunkorren eraginaraztea erabaki badu edo erabakitzen badu.

Guztiak Fundazioaren izenean agertu beharko dute, eta bere inbentarioan eta Fundazio Erregistroan azaldu beharko dute.

##### **27. ARTIKULUA.- ONDAREA**

Fundazioaren ondarea edozein tokitan dauden ekonomikoki balora daitezkeen ondasun eta eskubideek osa dezakete, eta bereziki hauek:

A) Ondasun higiezinek eta egiatzko eskubideek, Jabego Erregistroan Fundazioaren izenean inskribatuko direlarik.

B) Balore higikorrek, fundazioaren izenean banku edo aurrezki establezimenduetan jarriko direlarik.

C) Ondasun higiezinek, jabetza tituluek, gordailuen ordezkagirik edo Fundazioaren titularitatekoa den beste edozein jabetza, erabilera, gozamen edo eskubidek.

D) Liburutegiek, artxiboek edo beste edozein motako aktiboek, inbentarioan agertu beharko dutelarik.

##### **28. ARTIKULUA.- ESKUZABALTASUN EKINTZAK**



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

Fundazioko kideek jaraunspenak eta dohaintzak onartu edo ezetsi dezakete, beti ere Fundaziorako komenigarria irizten badiote; Protektoratuari horren berri eman beharko diote.

Protektoratuak kideen aurka egokiak deritzon ardurapeko ekintza judizialak eragin ditzakete, haien jarduteak Fundazioari kalteren bat sortzen dienean.

### **29. ARTIKULUA.- ERABILPEN ETA ZERGAPETZE EGINTZAK**

Kideek berehala Protektoratuari Fundazioko ondare hornidura osatzen duten ondasun edo eskubideen gaineko erabilpen edo zergapetze egintzen berri emango diote, baita Fundazioaren xedea betetzeari abikita dauden egintzena nahiz Fundazioaren urteko azken balantzeko aktiboaren ehuneko hogeiko balorea baino handiagoa duten ondasunen ere.

Gainera aipatutako ondasun edo eskubideen transakzioa edo arbitrajea egiteko asmoa dutenean, Protektoratuari horren berri emango diote.

Protektoratuak kasu bakoitzeko baldintza eta egoerak egiaztatzea eskatu ahal izango du.

Erabiltze eta zergapetze egintzak Fundazio Erregistroan jasoko dira, dagokion bestelako erregistro publikoetan ere jaso daitezkeelarik.

### **30. ARTIKULUA.- FUNDAZIOKO KAPITALA INBERTITZEA**

Patronatua eskudun da Fundazioaren Patronatuaren osaeran behar diren aldaketak egiteko, une bakoitzeko egoera ekonomikoaren arabera komeni dena eginez. Hala ere, Protektoratuari baimena eskatu beharko dio edo aldaketen berri eman beharko dio.

### **31. ARTIKULUA.- ERRENTAK ETA DIRU SARRERAK**

Jarduerak garatze aldera, Fundazioaren ondarearen etekinek dakartzaten bitartekoen bidez finantzatuko da Fundazioa eta, hala badagokio, pertsona edo erakunde publiko zein pribatuen laguntzetatik datozen laguntza, dirulaguntza edo donazioen bidez.

Gainera, fundazioak bere jardueretatik etekinak atera ahal izango ditu.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B** 31067563



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

### **32. ARTIKULUA.- ERAGINKORTASUNA**

1.- Fundazioko ondasun eta errentak berehala eragintzat eta abxikizat emango dira, Fundazioaren helburuak lortzeko ez delarik pertsonarik tartean izango.

2. Fundazio ondare hau estatutu hauetan aipatutako interes orokorreko helburuak lortzeari abxikia izateak izaera komun eta zati ezina du, hau da, helburu horietako bakoitzari fundazio errenten horniduratik zati edo kuota berdin edo ezberdinak ezarri gabe. Ondorioz Fundazioa ezin izango da hornidura edo errentak berak lortu nahi dituen helburuen artean banatzera behartu, ezta helburu jakin bati edo batzuei aplikatu ere.

### **33. ARTIKULUA.- KONTABILITATEA ETA AUREKONTUA**

1.- Patronatuak ondokoak onartuko ditu urtero: Ekitaldia ixterakoan fundazioak duen inbentarioa, Egoeraren balantzea, Eraitzen Kontua, Fundazioko jardueren Memoria espresiboa, eta kudeaketa ekonomikoa, azken honen barruan finantzazio taula eta fundazio helburuak zein mailataraino bete diren agertuko delarik.

Gainera Memoriak zehaztuko ditu ondare aldaerak eta gobernu organoetan, zuzendaritzan eta ordezkartzan izandako aldaketak.

Bestetik Aurrekontuaren likidazioa ere egingo du.

2.- Gainera Patronatuak hurrengo ekitaldiari dagokion Aurrekontua onartuko du, eta bertan Patronatuko sarrera eta gastuen aurreikuspena eta Memoria adierazgarria egongo dira jasoak.

3.- Behin Fundazioko Patronatuak agiri horiek onartzen dituenean, dagozkion hurrengo ekitaldiaren sei hilabeteetan bidaliko dira Fundazioko Patronatura aztertu eta Fundazio Erregistroan ezartzeko, Aurrekontua izan ezik, izan ere azken hau Protektoratuan aurreko ekitaldiko azken hiru hilabeteetan aurkeztuko baita ondorio beretarako.

4.- Legedian izandako aldaketengatik artikuluan aipatutakoak ez diren beste agiri edo epeak eskatzen badira Patronatuak beharrezkoa dena bete egingo du une oro.



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

5.- Fundazioak nahitaez jarduerak era egokian eraman eta garatzeko eta bere kontabilitatearen kontrol egokia egiteko Egunkari bat eta Inbentario eta Urteko Kontuei buruzko Liburu bat egingo ditu.

Urteko Kontuek (Balantzeak, Emaizten Kontuak eta Memoriak) unitate bat osatzen dute, eta ondarearen, finantza egoeraren eta fundazioko emaitzen irudi fidela azaldu eta argitasunez idatzi behar dira.

Memorian balantzeko eta emaitzen kontuko informazioa osatu, zabaldu eta azalduko da, eta ondare osagaiei buruzko inbentario bat sartuko da.

### **34. ARTIKULUA.- KONTUHARTZAIETZA**

Erakunde fundatzaileak izaera publikoa duenez, eta nahiz eta berezkoa duen erakunde izaera dela ez lukeen urtero kanpoko kontu auditoria baten menpe egon behar, hala ere Fundatzailearen borondatea urteko kontuei buruzko auditoria egitea da.

Auditoreek egindako kontuei buruzko txostenak gutxienez ondokoak izan behar ditu bere baitan:

- a) Kontabilitate eta urteko kontuen bidez egiaztatutako lege edo estatutu araudiekiko arau-hausteen gaineko oharrak.
- b) Egiaztatutako edozein gertaeraren gaineko oharrak, gertaera horiek fundazioko finantza egoerarentzako arriskua direnean.

Auditoria honen inguruan ezarritakoak ez ditu eragotziko Euskal Administrazio Publikoek Fundazioari emandako laguntza edo dirulaguntzaren erabilera eta xedeei buruz ezarri beharreko zergak.

### **35. ARTIKULUA .- FINANTZA ARAUBIDEA**

Fundazioaren ekonomia ekitaldia urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasiko da eta abenduaren 31n bukatuko da.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

31067562



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

Ekonomia eta finantza kudeaketan Fundazioa indarrean dagoen araudian ezarritako printzipio eta irizpide orokorren arabera arautuko da.

## **V. ATALA: ESTATUTUEN ALDAKETA ETA FUNDAZIOAREN FUSIOA IRAUNGITZEA ETA LIKIDAZIOA**

### **36. ARTIKULUA.- ESTATUTEN ALDAKETA**

1.- Estatutu hauek Patronatuak hala erabakita aldatu ahal izango dira, beti ere Fundazioko interesei komeni bazaie eta bere fundazio xedea errespetatzen bada.

Aldaketa hori egingo da Fundazioaren eraketa sortu zuten egoerek ez dutenean indarrean dauden Estatutuen arabera jokatzeko bidea ematen.

2- Estatutuak aldatzeko akordio horiek hartzeko Patronatuko kideen bi herenen aldeko quoruma beharko da.

3.- Patronatuak adostutako Estatuaren idazketaren aldaketa Protektoratuari jakinaraziko zaio, bere baimena behar den kasuetan izan ezik; kasu horretan Patronatuak berak eskatuko du baimena eskritura publikoa eman aurretik, eta gero Fundazio Erregistroan izena emango du.

### **37. ARTIKULUA.- FUNDAZIOAREN FUSIOA**

Gainera, fundazioaren interesetarako komeni denean eta helburu berak jarraitzen dituzten beste fundazio batekin edo batzuekin dagokion akordiora iristen bada, Patronatuak fundazio jakin batekin edo batzuekin bat egitea erabaki dezake, beti ere fundazioaren xedea errespetatzen bada.

Batzeko akordioa hartzeko gutxienez Patronatuko kideen erdia gehi bat beharko da, eta protektoratuari jakinarazi beharko zaio onespena eman diezaion eskritura publikoa eman aurretik; ondoren Fundazio Erregistroan emango da izena.



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

### **38. ARTIKULUA.- IRAUNGITZEA**

1.- Fundazioa indarrean dagoen araudian ezarritako arrazoiengatik prozeduren bidez iraungiko da.

2.- Iraungitzeko akordioak Protektoratuaren berrespena beharko du.

Protektoratuak berresten ez badu ebazpen judiziala beharko da, Protektoratuak edo Fundazio organoak eskatuta.

### **39. ARTIKULUA.- SOBERAKO ONDAREAREN LIKIDAZIOA ETA XEDEA.**

1- Fundazioa iraungitzeko, iraungipen horren jatorria bat egite prozesu bat denean, edo iraungitzeko arrazoiak betetzea denean salbu, beharreko likidazio prozesua hasiko da, eta kitapen hori Patronatuak edo gobernu organo horrek izendatutako batzorde likidatzaileak egingo du Babesletzaren kontrolaren pean, ebazpen judizial arrazoitu batek, hala badagokio, xedatzen duena salbu. Fundazioak bere nortasun juridikoari eutsiko dio prozesu hori amaitzen den arte, eta denboraldi horretan "likidazioan" gisa identifikatuko da Fundazioa.

2- Likidaziotik sortutako ondasunak eta eskubideak honako hauetarako erabiliko dira:

a) Hondarribiko hirian interes orokorreko helburuak aurrera eramaten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuatarako.

b) Pertsona juridiko publiko sortzaileentzat, eratu zenean edo geroago egindako ekarpenaren arabera (pertsona juridiko sortzaileetakoren bat sektore publikoaren barnean badago).

3- Aurreko erabaki horietakoren bat ez bada hartzen, ondasunak eta eskubideak iraungitakoaren antzeko helburuak dituzten beste fundazio edo erakunde batzuei emango dizkie Babesletzak, batez ere beren helbidea udalerrri berean, edo bestela, lurralde historiko berean dutenei.

### **Protektoratuaren aldeko salbuarda klausula**

FORU TIMBREA  
TIMBRE FORAJ



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B** 31067561



**ARMA PLAZA**  
FUNDAZIOA

Estatutu hauetan ezarritakoa ezin izango dira indarrean dagoen ordenamendu juridikoak Protektoratuari emandako eskumenak mugatu edo ordezkatzeko moduan ulertu, bereziki espresuki Fundazioaren gainetik dauden baimen, Komunikazio edo mugatzeei dagokienez.